

EUSKAL HERRIA UKATU ALA AITORTU?

Hizpide eta buruko min franko eman du Euskal Herriak historian zehar. Eta hizpide eta burukomin guztiak buka daitzen beste biderik ez dela dirudi: uka eta desegin ala aitortu eta onar. Hildakoek ez dute borrokarik egiten, bakean bizi dira eta bakea ematen dute.

Historian zehar jende askok desegin nahi izan du Euskal Herria. Europako beste leinu eta enda guztiak kanpotik etorri-tako jendeaz nahasi eta gidatu dira. Etorकिन eta bertakoen ondorengoak ditugu Europan gaurregun bizi diren beste herri guztiak. Etorकिनek desekin ez dute nherria Euskal Herria bakar-ria izan da.

Haseratik gaur arte, mendetan zehar, irau duen herri honek ez dirudi hiltzeko prest denik. Bestalde, inor hiltzea ikaragarria da. Ezin daiteke onar. Ez da zuzena. Itsu ez den edonork hori badaki.

Beste biderik ez da, beraz: aitortu, onar eta erantzun jator bat eman. Aspaldidanik sustraitu zen Euskal Herriari irizti hau. Egokiena izan duen guztiari eskatu du Euskal Herriak eskubide hau.

Baina, orain, Madrilo egunkariak eta politikoeak ere gauza bera agertzez ligute. Euskal Herriaren kulturari, hizkuntzari, nortasunari eta lege-eskubidei erantzun bat eman behar zaitez aitoritzen dute. Madrilo gortetari irizti da garrasi hau.

Lehen urrats bezala Gipuzkoa eta Bizkaiari konzertu ekonomikoa itzultzea izango litzateke.

Hori, ordea, ezer gutxi dela esan dute. Bidegabekeriak kendu zitzaizkigun foruak, euskal eskubideak, euskal legeak, itzuli behar omen zaizkigu. Eta, jakina, gure nortasuna eta askatasuna babesten eta gordetzen zuten foru haik gaurkotu egin behar omen dira.

Euskal Herriari bere nortasuna eta askatasuna gordeko dizkion bide bat asmatu behar omen da. Honetan gara gu ere, noski. Baina horietarako bultzatzen guztiari irizti honen alde borrokan irau duen jendeaz hitzegin beharko litzateke. Irizti honen aldeko gazteria baztertu gabe, jakina.

Iritzia eta jokabide berri asko mundura da azken urteotan. Arazo bihurri eta korapilatsu asko da gizartearen. Baita Euskal Herriaren ere. Industriadutako herri bat da gure hau.

Industria herri honi erantzun jator bat eman nahi baldin badiegu erantzun zuzena eman behar diogu langilerari. Artzain arrantzale, eta nekazari giroko Euskal Herriak bere moldeak izan zituen. Caurregun molde berri batzuk sumatu behar ditu.

Molde berri hori, bide berri hori, eraman behar dugu politikazokara. Baina hori ez da bapatean asmatzen. Aldez aurretik barazteen, sorroan, oilategian edo ikuluan lanik egin ez deneak eraz gutxi eraman dezake azokara. Haulokoren bati erositako zerbaitek bakarrik eraman dezake.

Eginahalak jo eta ere ez da jenero asma eramaten beti. Banan-banakoak gutxitan eraman ohi dira. Halere, txarreagoa berederen, haulokoarena eramatea baino norik bere eramatea hobe.

Bizi garen egoeran eta giroan asma daitkeen moldeak eta bideak sumatzen saia gaitzen, beraz, bizkor eta burutsu.

ZERTAN OTE DIRA ARMENIARRAK ?

M. Kemal urrun da, Smyrnako hilketa basa urrun da; eta Armeniari buruz gaur ezker izkiriak halako anakronismo kutsua badu. Badakit. Biazraz edo Kareliaz izkiriak bezala.

Azkeneko asteotan, halere, armeniarren berri eman dute Europako aldizkari batzuek bederen. Zerbait atsegin ez bazaito ere, «armeniarrak» bat badago; eta arazo hori nazio-arazo garbia da.

Orain dela 50 urteko *genozidio izugarria* ahaztu nahi bada ere (= 1.500.000 bizilagun errustuak, hildakoak eta desherriak batuz, ozta-ozta lau miloi zituen herri txiki batetan!), armeniar herria hiru zatitan zatiturik badago ere, ez da zeharo suntsitu. Armeniarrak 3.600.000 bat lagun dira gaur.

Gehienak URSSen barruan bizi dira (2.300.000 lagun, jendaketa % 88 Errepublikak horretan) «Armenia»-ko eskualdean.

Turkiar, berriz, 1.000.000 bat inguru bizi dira. Kemal-en genozidioan salbatu zirenen ondorengoak, Kurdistango mugaren ertzean eta menditontoretaraino. Hauek eta haiek, jakina denez, zeharo ukaturik eta zapaldirik; URSSen baino aisa okerrago.

Eta, Iranen azkenekorik, ba-bide dira beste 300.000 bat; hauek ere, esan beharrik ez da, herri gisa arunt ukatuak.

Bi dialektu nagusitan mintzaturik (URSSeko Armeniako lege-hizkuntza bata, «ekaldetarra»; eta Iranen eta Turkiar «mendebaltarra»), orain dela hamabost mende «batua» eta idazkera bereziaz hornitua, armeniera oso hizkuntza harrigarria da: indoeuropatar mintzairetan bitxieta askoren uestez.

Jatorriz menditarra den herri hori, Ararat mendietan eta Van lakuaren inguruetan bizi da oso aspaldidanik; baina kaletartzen hasia da (% 52 kaletar orain dela hamabost urte).

1925ean Adanan, Van-en, Marash-en, Smyrnan *ehunda milaka* doilorki xehaturik, turkiatartu ala hil du hautu bakartzat. Turkiako Kurdistani buruz bezala zentsura gaitza izanik, ia ezer ez dugu. Baina Frantziako armeniarrek noizpehinka helarazten dituzten deihadarrez bestalde, nazio-arazo ezinago larria badagoe-lan sumatzen dugu.

1915-1916an lehendabizkorik, eta 1922an Smyrnako hondamendian gero, juduek 1944-1945ean ezagutuko zuten genozidioaren lehen saialdia ezagutu zuten armeniarrek. Gogora dezagu hitz laburretan. Turkiar armadak inguratuturik zegoen Smyrna; eta bi kilometro luze eta

ehun metro zabal zituen lur-zerranda hestu batetan pilaturik zeuden 500.000 lagun, harago ezinik [greziarrak ghehenak, bai; baina armeniarf mordo handi bat ere bai haiekin, ihesi iritsirik]. Itsasoaren aldera tiroka bultzatuta bultzatuta, hantxe hil ziren, Dan-te ikartzeko moduan, zeuden guztiak. Auschwitz baino lehenago bederen munduak ez zuen izugarriagorik ikusi. Eta istorilari-ek diotenez, armeniarrek bildu zuten herririk goriena, nahiz 1922an iskulirik ez hartuak izan. Turkiatarren mamu beltz madarikatuta armeniarrek ziren.

URSS berria, Lenin buru, hor zegoen, Iparraldean, mendebal-tarren mehatxu; eta Kemal-en Turkiar, genozidiotan usatua ere, anti-sobietikoa zen! Isildu egin behar, hortaz. Eta Europako eta Ameriketako agintariak isildu egin ziren. Eta 1.500.000 armeniarren heriotzak ez zuen munduan arabots ozenik sortu.

Eta, gaur? «Armenia? Connais pas». Nahiz gertakari larri horiek azterketa sakon bat merezi izan, nahiz hilkintza itsu horiek edonori pentsarazteko gai izan; edo eta hozengatik behar bada, aipatu ere ez! Baina Adanan, Van-en, Marash-en, Smyrnan, *genozidio oso* bat gertatu zen; eta Turkiar «zaharra» berritu eta europartatu nahi zutenek burutu zuten. Armeniarrak, ideiei eta klase-egoerari jaramonik egiten

ez zitzaizela, *armeniar gisa*, eta Turkiaren *etni-batasuna* soilki lortu nahiz, izan ziren erhanak; eta zakurrak baino okerrago har-tuak.

Hots, Armenia sobietikoan ere, nahiz armeniarrek Komunista Alderdiari millante asko eman (Errusian bertan baino indartsuago da Armeniako K.A.: % 6,1), nahiz URSSeko armeniarrek Turkiako eta Irangoak baino askoz hobeki tratatuak izan, Armeniaren *erusitartzea* salatzen da gero eta sarriago. Transkaukasiako Bulego bereziak (Georgia, Armenia eta Adjer-baidjan-go errepublikak «jarraitzeko» apropos sortua), 1829an Errusiako Czar-ek burutu zuen okupazioari eutsiz, Moskuko interesak zaitzen ditu eta ez armeniarrenak. Noski!

Orain dela hilabete batzuk Moskuko, Armeniako buruzagik mordo bat bazter erazi ondoren (Kotchian lehen Segretarioa bar-ne), «sobietar abertzaletasuna» azkartzeko eskatu du, eta «aberrikeria burges txiki» gupidaga-beki erautzeko.

Armeniar galbarioa, beraz, ez da bukatu. Eta baliteke ondoko urteetan hiru eskualdetako armeniarrek Armenia Batu eta Askatu baten alde burrukan hastea. Ahal badute! Ez bailitzateke, bidenaberre esateko, lehenengo al-diz izango!

LARRESORO

Azken «CROMAÑONA»: Euskal Herria

Euskara da Europa preindoeuropearen azken lekuko. Antropologiako ikerketa-rik sakonak ondorio honetara iritsi dira: orain dela 10 edo 30 mila urte Europako sartaldean bizi ziren gizonen ondorengo direla euskaldunak. Bizi garen gizon guzti-zen artean euskaldunak gordetzen dute «cromañon» kutsurik eta antziz haundiena. Are gehiago, Euskal Herriari aurkitu diren giza-zezurtean garbi ikusten da «cromañon»-etik hasi eta gaurko euskaldun arte gizonak izan duen aldaketa. Frantziar eta Espainiar ez ezik, baita Sahararik Eskandinabiarraino eta Atlantiko-rik sortaldeko Europaraino ere, Euskal Herria da endar-rik zaharrena euskaldunetan den odol-taldeari begiratzen badiegu.

Munduan famatuak diren Jacques Ruffié eta Jean Bernard hematologoek hauxe aitortu diote, 1974garrengo Abenduaren 3an, «L'Académie nationale de médecine»-ri:

«Breitainian, Normandian, Gales Herrian, Eskozian, Irlandan, Islandian, Mediterraneo Uhartetan, Alpetako zenbait lekutan, Ligurian, Saharako Bereber Herrietan eta Touareg alderdian ere aurkitzen da euskaldunen odolaren berezitasuna. «Eta geroxeago hauxe baieztatu dute: «Leku hoietako hizkuntzak eta euskarak badute antziz eta hain zuzen odol-berezitasun berdinekoen artean hitz egiten dira elkarren antza duten hizkuntza hauek.

«L'American Journal of Physical Anthropology» aldizkarian honako hau argitaratu eman zuten, 1949garrengo urtean, gai honetan jakintsu diren anglosajonek:

«Gaurregun Europako sartaldean eta erdialdean bizi den jendea euskaldunak eta Asiatic etorri zirenak nahasiz sortua dela esateko arrazoirik aski badugu.

Etorकिन haiek, meatzak, nekazaritza eta euskaldunak ez beste guztiok hitz egiten ditugun hizkuntza indoeuropeoak ekarri zizkiguten. Baina, emakume gutxieste, giza-mailen

desberdintasuna, aristokrazia, monarkia, Jainkoarengandik datorren agintea, besteak menderatzeko eskubidea eta jopu izatea ere ekarri zitzi-guten.

Etorकिन hauek heldu aurretik bizi zen gizonaz ezer bai ahal dakigu?...

Ez erromatarrek, ez zeltek eta ez germanoek menderatu zituzten gizonen hauen misterioa agertu behar da, urte askotako isiltasun eta isekaren ondoren.

Milagroz bezala irau dute gizon hauek Euskal Herriari. Ipar Euskal Herriari 1789garrenean eta Hego Euskal Herriari 1876garrenean kendu zitzaizkien euskal erakunde eta legeak. Halere, 13garren eta 16garren mendeen osatutako foruetan eta oinarri hautetan finkaturik bizi izan dira euskaldunak, hots, gizoneko eta emakumezkoen arteko berdintasunean, bizimoduaren berdintasunean, demokrazian, elkartasunean, maila guzti-tako autojesteian, elkar-bizitza, pertsonaren eta etxearen sakratutasunean, beste herrirek ez menderatzeko go-goan, herri guztiaren berdintasunean, herriaren nahia betetzen ez duen agintariaren aurka jaikitzeo eskubidean eta abarretan. Gezurra badi-rudi ere hala da.

Europar bere berea duen kultura eta izaeraren agerpen dira euskaldunen kultura eta izaera. Aintzino Europan hondar eta aztarren hauek Suizan, Andorran, Bretaina Haundian, eta Eskandinavian aurkitzen dira gehienbat. Zelt-ten erakunderik zaharretan ere bai, agian; Corega, Cerdeñan eta abarretan, esate baterako...

Kulturaren eta hizkuntzaren alde borrokatuz adierazten dute euskaldunak beren bizi-tzeko eskubidea. Gaur munduan eta Europan agindu nahi duten talde burgesak Euro-paran heldu ziren aintzino-ko etorकिन haien ondorengoak dira. Hoi-en kultura eta zibilizazioaren aurka jaikitzen eta abesten dute euskaldunak: EZ, EZ DUT NAHI HOKALAKO ZIBILIZAZIORIK.

Le Monde-tik hartua

zeruko ARGIA

EUSKALDUN ASTEROKOA

DENON ARTEAN HOBEA
BILA EZAZU HARPIDEA

Izen-deiturak _____
Kalea _____ Zenbakia _____
Herria _____ (Prob.) _____

zeruko ARGIA

JABEA:

Nafarroa, Kantauri eta A-ragoiko Kaputxinoek.
Burlada, Kale Nagusia, 50-1
Donostia, Okendo, 22
Telf. 41-95-88

Ondezkaria: Kaletano Ezelza Iturriza

ARPIDE SARIA:
Barruan 400 pezeta
Korreo batasunetako herrietan 620 pezeta
Atzerrietako beste herrietan 460 pezeta
Airez Aldez aurretik galdetu

Salmenta (ale bakoitzeko) 10 pezeta

Moldiztegia eta Idazkola:
«Gráficas Navasal»
A. Adoain, 1. IRUINEA
D. L.: NA. 80-1963